

MIKEL URRUTIKOETXEA



kultura

aldizkaria

A

Aurkibidea

Denbora pasak (3)

Herri txikian, handiak: Mikel Urrutikoetxea (4-5)

Gure langileak: Josemi Ipiña (6-7)

Gure ikasleak: Gonzaga Negrete / Asier Oleaga (8-9)

Euskararen jakingarriak (10)

Literatura txokoa: Clousseau Panteragorri (11)



“Ulibarri euskaltegiko ikasleentzat besarkada handi bat,”

Mikel Urrutikoetxea

K

kultura

Denbora pasak

Letra Zopa

Topa itzazu zortzi pilotarien izenak.
Gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.



I	R	I	B	A	R	R	I	A	L	X	Z	G
I	T	J	U	B	E	N	O	A	T	A	O	A
S	B	E	N	G	O	E	T	X	E	A	E	C
J	U	R	R	U	T	I	O	R	O	X	R	O
O	A	D	R	J	R	K	N	N	T	P	E	L
J	L	R	Q	W	I	A	A	E	R	F	A	A
L	T	Y	W	T	U	K	O	I	A	S	G	I
Ñ	U	J	U	X	Z	K	A	Ñ	N	Ñ	A	Z
W	N	R	R	E	I	E	I	U	T	N	Z	O
A	A	L	L	T	D	A	N	G	Z	C	T	L
U	U	E	U	R	A	D	A	I	E	O	P	A
A	Z	R	A	Y	L	U	B	A	D	T	G	L
J	R	V	S	G	M	V	S	E	F	L	E	M
U	S	B	G	A	L	A	R	Z	A	T	G	R



EMAITZAK: Urrutikoetxea, Iribarria, Elezkano, Olazola, Bengoetxea, Altuna, Galarza, Retegi.



Pilota galdetegia

Euskal Herriko kirol propioa eta mundu osoan ezaguna.
Ondo ezagutzen alduzu kirol hau? Jakingo duzu galdera havei erantzuten?

1. Nor da txapel gehien irabazi duen pilotaria?

- Urrutikoetxea
- Martinez de Irujo
- Galarza
- Retegi II

2. Nor da buruz buruko txapela lortu duen pilotaririk gazteena? eta zaharrena?

- Altuna eta Barriola
- Urrutikoetxea eta Atano III
- Iribarria eta Retegi II
- Eugi eta Beloki

3. Zer du pilota batek barruan?

- Goma, zetazko haria eta behi larrua
- Potroa, artilezko haria, eta ahuntz larrua
- Harria, oihala eta latexa
- Metala, kotoia eta zaldi larrua

4. Esan itzazu Hego euskal Herriko hiriburuetakoko pilotalekuen izenak: Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruña.


- Bizkaia, Atano III, Ogeta, Labrit
- Ogeta, Beotibar, Labrit, Astelena
- Bizkaia, Astelena, Labrit, Beotibar
- Bizkaia, Beotibar, Atano III, Astelena

EMAITZAK: 1.-d / 2.-c / 3.-b / 4.-a

Herri txikian, handiak

Mikel Urrutikoetxea

Pilota zaleen artean bolo-bolo dabil egunotan Mikel Urrutikoetxearen izena. Txapela nagusi guztiak irabazi dituen pilotari bizkaitarrak ez omen du joko sekreturik eta bere lorpen guztiak lan handia eginez lortu dituela dio, "konsziente naiz dana hobetu daitekeela, eta ni horretan ahalegintzen naiz egunez egun, pertsona ona izaten eta pilotari moduan ahalik eta onena ematen". Horrelakoa da Mikel hurbila, zentzuduna eta langile fina.



Zaratamo Bizkaiko udalerrri txikienetako bat da, eta bi pilotari ditu goi mailan. Zelan da posible?

Zorte-kontua ere bada, Zaratamon afizio handia dago eta herriko gazte gehienak pilota munduan aritzen ginen herriko pilota-eskolan. Bai Danel Elezkano eta bai ni bertan hasi ginen.

Lau eta erdian, buruz buruzkoan, binakakoan... Zenbat txapel irabazi dituzu

Afizionatuetan asko, baina profesionaletan txapelak lortzea zailagoa da, maila oso handia dago eta. Niretzat 2015-2016 urtea magikoa izan zen, hiru txapel garrantzitsuenak irabaztea lortu bainituen. Ea hemendik aurrera zortea dagoen besteren bat lortzeko!

Zer gelditzen zaizu irabazteko?

Hirurak irabazi ditut, baina binaka irabazi nuena atzelari bezala irabazi nuen Olaizolarekin eta gustatuko litzaidake egunen batean aurrelari bezala irabaztea. Azken batean historian inork ez du lortu hori eta gauza polita izango litzateke.

Garai batean nafarrek irabazten zituzten txapelak, baina azken urte hauetan mendebaldekoak ere, Bizkaia eta Gipuzkoa, ari zarete txapelak irabazten. Nolatan?

Nik uste dut bolada kontua dela. Lehen bazirudien nafarrek menderatzen zutela pilota-mundua, baina egun bai Gipuzkoan eta bai Bizkaian pilotari oso onak daude eta hori pozgarria da. Polita litzateke arabarren batek ere egunen batean debutatzea eta profesionaletara iristea. Zaletuentzat, kirolarientzat eta pilotan aritzen diren mutikoentzat ona izango litzateke.

Zenbat denbora ematen duzu eskuak prestatzen?

Zein da prozedura?

Asko! Pilotari bakoitzak bere modua du takoak jartzeko. Nik ohitura daukat etxean prestatzeko, denbora asko ematen dudalako takoak egiten, ordubete esku bakoitza, eta gero, partida hasi aurretik, saiatzen naiz beti ordu eta erdi arinago egoten frontoian.

Partida garrantzitsu batean noiz hasten zaizkizu nerbioak?

Lo egiten al duzu normaltasunez?

Lo egiteko ez daukat inolako arazorik, baina egia da, partida garrantzitsuak ditudanean, aurreko egunetan beti egoten da urduritasun-puntu bat, elkarrizketa asko izaten ditugu, entrenamenduak... tentsio hori ez da txarra, inporta zaizun seinalea da. Gero saiatzen naiz partidan zehar lasai mantentzen, nahiz eta oso zaila izan.



kultura

Mikel Urrutikoetxea

Egun pilota-jokoa oso arina da. Lehen aurkariak botea emandakoan jotzen zuen pilota, eta egun, aldiz, gero eta gehiagotan boleaz erantzuten zaio sakeari.

Horrek dakar fisikoki atleta bat izatea.

Bai, pilotak izan duen aldaketa handienetako bat izan da. Duela gutxi arte partida asko botera jokatzen ziren, eta gaur egunean, berriz, erritmoa askoz azkarragoa da, pilotari guztiak aireko jokoa oso ondo menperatzen dute. Oso joko azkarra da. Prestaketa fisikoa handiagoa da. Ez bazaude ondo prestatuta, kantxa barruan nabaritu egiten da.

Entrenatzeko lehen korrika menditik, eta aizkorarekin arbolak mozten ibiliko ziren, orain baserritik gimnasia pasatu gara, egun nolako dira pilotari baten prestaketa-lanak?

Nik prestatzaile fisikoa daukat. Berak kontrolatzen dizkit entrenamendu fisiko guztiak.

Nutrizionista bat ere badut, eta prestatzaile teknikoa, nire kasuan, Pablo Berasaluze. Lauron artean talde bat sortzen dugu. Ni naiz kantxara irteten dena eta niri ikusten zait jokatzen, baina atzean lan asko dago.

Zein zen zure idoloa txikitik?

Nik txikitatik Aimar Olaizola izan dut erreferente. Debutatu aurretik, akordatzen naiz berak buruz-buruko txapelak prestatzen zituenean niri deitzen zidala entrenatzeko. Berarekin entrenamendu asko eginda nago. Gero debutatu egin nuen eta berarekin jarraitu nuen entrenatzen.

Binakako txapelketa elkarrekin jokatu genuen eta erlazio berezi bat sortu zen, oso ondo moldatzen gara. Bientzat binakako txapel hori irabaztea oso gauza berezia izan zen.

Orain buruz buruko txapelketa honetarako berak lagundu dit prestatzen.

Olaizolaren palmaresa eta irabazi dituen txapelketa guztiak ikusita, pilotari guztiak erreferente moduan eduki beharko genuke.



Autografo asko sinatzen dituzu?

Zeintzuk dira ospearen alde onak eta txarrak?

Alde ona badu: zutaz hitz egiten denean gauza ona da, zeozer handia egiten ari zaren seinale. Umeak etortzea sinadura eske niri pozgarria iruditzen zait, gustura egiten dudana gauza bat da. Nik ere umetan berdin egiten nuen. Ilusioa egiten zidan pilotari profesional baten firma edukitzeak.

Bestalde, lasaitasuna edo deskonektatzeko momentuak behar dituzuenean, kaletik ezagutu egiten zaituzte, eta, gainera, pilotaz hitz egiten hasten dira eta beno... onartu beharreko gauza bat da, gure bizimoduarekin batera doa.

Zergatik ez dira pilotan ikusten beste kiroletan ikusten diren keinu itsusiak?

Errespetu kontua da. Pilota-mundua oso mundu txikia da. Pilotariak askotan egoten gara elkarrekin, aldageletan elkarrekin aldatzen gara, ordu asko ematen ditugu batera eta asko lagunak gara. Errespetu-kontua da.

Nik gutxitan ikusi dut pilotariak haserre edo protestaka kantxa barruan. Azken finean denak ezagutzen gara, denak lagunak gara, eta hau kirol bat da. Pilota errespetu handiko kirola da.

Gure langileak: Jose Miguel Ipiña



Jose Miguel Ipiña
Zeberioztarra
58 urte
Ulibarriko Administrazio Arduraduna.

$$1 + 2 = 3$$

Josemi Zeberiokoa da, Artiñau Goikoa baserrikoa. Bertakoak ziren haren bi gurasoak, ama eta aita, bertakoa amama, eta birraitona eta birramama ere bai... Bost belaunaldi zeberioztar.

Ondo ezagutzen du baserri-mundua, baserriko lan guztiak egin izan ditu, belarra moztu, animaliak jagon... bertan bizi izan zen, gaztetan Bilbora lanera etorri zen arte.

Aizkoratik ordenagailura. Baserrikoa izatez, baina jada 35 urte daramatzazu Ulibarri euskaltegian administrazio-lanetan, ezta?

Baserrian jaio nintzen, bai, eta, 20 urte izan arte, bertan bizi izan nintzen. 20 urterekin informatika ikasi nuen Bilbon, eta segituan Ulibarrin hasi nintzen lanean, bulegari. Handik bi urtera kontabilitatearen ardura hartu nuen. Ordenagailua oraindik ez zegoen garai hartan, 1986 urtean, orduan kontu guztiak eskuz egiten genituen. HABEk txantilo batzuk bidaltzen zizkigun, eta guk idazmakinez bete behar izaten genituen. Gerora bai, ordenagailuak izan genituen.

Nolako bilakaera izan du euskaltegiak azken urteotan?

Ni hasi nintzenean, Urkixo Zumarkalean zegoen euskaltegia. Geroago, 1998ko uztailean Gardoki kalera etorri ginen, eraikina erosi genuen eta konponketa-lanak egin genituen... orain ezagutzen dugun euskaltegia sortu genuen.

Eta aldaketa horietan guztietan zu finantza-burua?

Bai, diru-kontuak neuk daramatzat, baina gero erabakiak bazkide guztien artean hartzen ditugu. Ni hasi nintzenean, Ulibarri elkartearen zen, eta gerora, kooperatiba bihurtu genuen.

Nola aldatu da ikasleen profila, urteak joan urteak etorri?

Kopuruari dagokionez, ez da horrenbeste aldatu. Duela urte asko ere Ulibarri Euskaltegiak bi mila ikasle inguru zituen, beti izan da Bilbon euskaltegi handienetariko bat. Agian, ikaslearen profila izan da eraldaketa handiena izan duena.

Garai batean 400 ikasle izaten genituen udako barnetegietan. Egun, gehiago dira ekainetik urrirako kurtsoak. Lehen, euskara ikasten zerotik hasten ziren ikasle asko izaten genituen, eta orain, berriz, eskoletan, unibertsitatean... euskaraz aritzen dira ikasleak, eta, euskaltegira etortzen direnean, euskaraz zertxobait badakite.



K kultura

Gure langileak: Jose Miguel Ipiña

Ulibarri euskaltegiaren historiaren lekuko. Baietz gogoratu hamaika istorio bitxi!

Asko gogoratzen ditut, bai, urte askoan gauza asko gertatu dira, baina guztiak ez dira kontatzekoak, kar-kar. Momentu xeble bat kontatuko dizut, 85-86 ikasturtean izan zen.

Xabier Amuriza bertsolari ezaguna Ulibarriko irakaslea zen, eta bertso-eskolak ematen zituen. Gabonen bueltan, bertsolaritza-eskolan, txerri bat zozkatu zen, bizirik. Zozketa egin zen, eta orduko garaiko Juan Mateo Zabalako zuzendariari tokatu zitzaion, apaiza zen bera, eta bertoko ikaslea.



Txerria Arrigorriagan erosi zen, autopista ondoko baserrian, Zeberioko lagun baten furgonetan sartu eta Bilbora ekarri zuten txerria. Txerriak 30-40 kilo izango zituen, fijo. Txerria euskaltegira igo genuen. Urkixo Zumarkalea, 18, nagusia, ezkerre. Zer gertatu zen? Jendea klasera etorri zen egun horretan, baina etorri behar zena, irabazlea, ez zen etorri. Zer egingo zen txerriarekin? Zer egingo zen txerriarekin? Zeberiotik furgonetak ekarritakoak "nik txerria ez dut eramango" esan zuten. Zergatik? Zeberiora eramaten bazuen txerria, atzera hurrengo egunean etorri behar zelako Bilbora!

Zer egingo den? Zer egingo den? Txerria kutxa batean sartu eta balkoian ipini genuen! Balkoiak 20 metro luze izango zituen, Urkixo Zumarkalean, Bilbo erdi-edian. Balkoian jarri eta bertan lo egin zuten txerriak! Hor eman zuten gaua.

Kar-kar! Auzokideak zur eta lur egongo ziren, ezta? Eta Udaltzainak ez ziren etorri?

Nik dakidala, ez, kar-kar! Hori bai, kristoren kiratsa zegoen euskaltegi barruan! Anbientadorea botatzen ibili ginen, baina "a gran escala", kar-kar! Hurrengo egunean deitu zitzaion irabazleari, eta eguerdirako etorri zen bila.

Ez zen berriro txerririk zozkatuko euskaltegian, ezta?

Bai horixe! Hurrengo urtean, bertsolaritza-eskolan, atzera zozkatu zen txerria. Zozketa egin zen bai, baina orduko garaian zer egin genuen? Irabazlea hartu eta guztiok joan ginen Arrigorriagara, bertan txerria aukeratu, txerriarekin argazkia atera eta irabazleari esan genion: "hemen duzu saria!". Hemen duzu txerria! Kar-kar!

Ulibarri euskaltegiko diruzaina eta administrazio-arduradun nagusia, egun ere Zeberion ematen ditu asteburu guztiak, familiaren baserriko lanetan, gustura. Josemik hiru seme-alaba ditu: Mikel, Inma eta Joseba, Artiñau Goikoa baserriko bostgarren belaunaldia. Katea ez da eten.

ULIBARRI EUSKALTEGIA ZIFRATAN

- Euskaltegia 1975ean sortu zen
- Euskal Herriko lehen euskaltegi profesionala da.
- Urtero, bi mila bat ikasle ditu.
- 60 langile, esperientzia handiko talde egonkorra.
- Bilboko erdigunean dago, Gardoki 3 kaleko eraikina.



Gure ikasleak



Gonzaga Negrete
Deustukoa
33 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, C1 maila

Korrika eta euskara dira egun Gonzagaren bizitzaren ardatz nagusiak.

Korrika egiten hasi zen lehenengo egunean ez zen gai izan Euskalduna Zubitik Bilboko udaletxeraino ailegatzeko. Hurrengo egunean berriro saiatu zen, eta horrela, pixkanaka-pixkanaka tarte handiagoa egiten zuen egunero, maratoi bat korritu zuen arte! 42 kilometro 2 ordu eta 57 minutuan da bere marka. 25 urte daramatza korrika egiten.

Tauroa da, oso burugogorra, eta, bere esanetan, hori bere ahulezia da, eta, aldi berean, bere indar-gunetako bat. Egun, euskara ikasten ari da eta filosofia bera erakusten du, pixkanaka-pixkanaka baina beti aurrera.

Zerk bultzatu zaitu euskara ikastera?

Etxean beti erdaraz hitz egin dugu, pena ematen dit euskara ikasteko aukera ez aprobetxatzeak, eta horregatik, duela lau urte euskaraz ikasten hasi nintzen, bi ordu egunero. Konturatu nintzen gustura nengoela, baina denbora gehiago behar nuela euskara ikasteko eta hurrengo ikasturtean lau orduko ikastaroan hasi nintzen.

Nolakoa izan da zure ikaste prozesua?

Hasieran nabaritu nuen aurrerapena nabarmena zela, eta horrek animatu egin ninduen jarraitzeko, baina gero, konturatu naiz euskaltegitik kanpo ere beharrezkoa dela ordu batzuk ikastea, bestela oso zaila da ikasturtea aurrera ateratzea. Saiatzen naiz egunero irratia entzuten, eta, ahal dudan neurrian, telebistan ETB1 ikusten.

Primeran orduan, ezta?


Gauza bitxia gertatzen zait, euskara ikasten hasi nintzenean, ez nuen lotsarik eta edozein pertsonarekin hitz egiten nuen, baina orain, gehiago ikasi ahala, kontrakoa gertatzen zait, badakit nahiko maila txukuna dudala, baina esamoldeak erabiltzea, hiztegi zabala eta dakidan guztia adieraztea kostatzen zait. Pixkanaka lortuko dut, baina prozesuan, batzuetan, aurrera joan beharrean, atzera noala iruditzen zait, kar-kar!

Zer eman dizu zuri euskarak?

Lehenengo, barneko satisfakzioa, eta gero, euskaraz bizitzeko aukera.

Asko gustatzen zait ezagutzen ez dudan herri batera joaten naizenean euskaraz erlazionatzea, Orozkon, Lekeitio, kasurako. Kostatzen zait euskaraz egitea, baina ikusten dudanean gainerakoek ulertzen didatela, horrek poz handia ematen dit. Hasieratik euskara ikasten ari naizela esaten diet eta nirekin pazientzia edukitzeko. Eta funtzionatzen du!

Askotan ohituta gaude norbaitek euskaraz ulertzen ez duenean edo ikasten ari denean erdaraz hitz egiteko eta uste dut hori okerra dela. Esfortsua egin behar dugu guztiok euskaraz hitz egiteko, ikasten ari garenek eta dakitenek ere. Askotan erosoak gara baina ahaleginak merezi du!



Gure ikasleak



Asier Oleaga
Algortakoa
43 urte
Ulibarri Euskaltegiko ikaslea, B2 maila



Ikastolan txikitan euskaraz ikasi zuen, eta gero unibertsitatean enpresa-ikasketak ere euskaraz egin zituen, baina urteokin, euskaraz egiteko erraztasuna galdu du. Urtarrilean hasi berri da Ulibarri euskaltegian eta bere helburua gutziz pertsonala dela dio: "Berriz ere euskaraz bizi nahi dut".

Zergatik eman duzu izena Ulibarri euskaltegian?

Ikastolako lagunekin afariren bat egitean nabaritzen nuen ez nintzela euskaraz ondo moldatzen, eta maila berreskuratzeko helburuarekin hasi naiz euskaltegian.

Konturatu naiz uste baino maila baxuagoa dudala: erdarakadak "pasada" hutsa dira, esaldiak nola ordenatzen ditudan, lexikoa, aditzak, deklinabidea... dena txarto. Bestalde, oso ondo ulertzen dut, eta ondo moldatzen naiz hitz egiteko. Esan behar dut oso pozik nagoela Ulibarrin, maila ona da, irakasleak oso onak dira eta klaseko kideekin ere oso gustura nago.

Euskara zaila ote da?

Ez, ez da zaila. Nire ustez, nahikoa logika dauka, euskara bitxia, aberatsa eta polita da oso. Oso pozik nator euskaltegira egunero, niretzat ordu eta erdi hau eguneko momenturik onena da. Nire helburua da etorkizun laburrean euskalduna izatea % ehunean.

Mendia eta euskara ere uztartzen dituzu, ezta?

Bai, hala da. Lagunak hasi ziren mendiko lasterketetan eta euren esperientziak kontatzen zizkidaten, lasterketako giroa, nola gozatzen zuten, esperientzia oso polita zen, buruan sartu zitzaidan progatu behar nuela eta entrenatzen hasi nintzen.

Orain mendi lasterketak egiten ditut, azkena, "Euskal Herria Mendi Erronka" Leitzako mendi lasterketak izan da, 67 km dira, basoak, haitzak, mendiak igo, jaitsi, ez da bakarrik lasterketa bat, abentura bat da. Normalean lasterketa lagunekin egiten dut, baina oraingoan nik bakarrik egiten dut, 8 ordu eta erdian. Bidetik Azpeitiako mutil bat ezagutu nuen, oso jatorra. Kontatu nion euskaltegian nagoela eta pare bat orduz euskaraz hitz egiten egon ginen, mintzapraktika!

laz, "Hiru Handiak" egin nituen, Gorbeia, Anboto eta Aizkorri igo behar dira. Lasterketa horrek badauka ere bere zentzu espirituala, eta benetan oso polita da. Lagun batek eta biok egin genuen, 101 km dira, eta 14 ordu eta pikuan egin genuen, kristoren esperientzia. Lasterketa hauetan bizitzen den giroa oso euskalduna da eta hori ere asko gustatzen zait.

Prestaketa-lan handia eskatzen du horrek?

Asteaz zehar gutxi egiten dugu, guztiok lan egiten gaudelako denbora gutxi dugu. Asteburuetan, berriz, goizeko 5etan geratzen gara mendira joateko. Lehen gauza bera egiten genuen, baina aldrebes, gauean atera parrandan eta bukatu goizeko 5etan, kar-kar. Beti gustatu zait jaia, nahiko nagusitan ere, baina azkenaldian ez zegoen ia-ia jenderik. Orain konturatu naiz mendietan zeudela guztiak, kar-kar, kar-kar!

aldizkaria

Euskara Jakingarriak

Basoa erdi beteta

Inkesta soziolinguistikoen esku euskararen egoeraren berri izaten dugu aldiro: euskaldun-kopurua zein den, elebidunen portzentajeak, euskararen ezagutza eta euskararen erabilera... Batzuetan datuak onak dira; besteetan, berriz, datu hobeak gustatuko litzaizkiguke. Bada, gaurkoan euskararen egoeraren erradiografia baikorra azaltzen dituzten zenbait datu emango dizkizuegu, "basoa erdi beteta" ikus dezazuen.

Gaur egun 1.185.500 pertsonak baino gehiagok ulertzen dute euskara.

Euskarak 223.000 hiztun irabazi ditu azken 25 urtean.

Jaiotzen diren euskal autonomia erkidegotarren 10etik 8 D ereduan matrikulatzen dira.

Bizkaiko 112 udalerrietatik 98tan euskara ulertzen du populazioaren erdiak baino gehiagok

Gipuzkoan kalean aurki ditzakezun 3tik 2ri euskaraz hitz egin diezaiekezu

Euskara munduko 34 unibertsitatetan irakasten da.

Interneteko hizkuntzen artean, euskara 45.a da.

Europako hizkuntza zaharrenetarikoa da, hau da, balio handiko ondare ukiezina.

Ez du gramatika-generorik; beraz, parekideagoa da sortzetik.

XXI. mendean, urteko batez besteko euskal liburu kopurua 2.200 da.

Euskaraz 125 hedabide baino gehiago daude.

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalak hitzean oinarritutako euskara hutsezko ekitaldi batean 15.000 lagun batzen ditu egun osoz.

Iturria: BERRIA, 2019/04/23 Xabier Paya

K

kultura

Clousseau Panteragorri irakaslearen LITERATUR GOMENDIOAK

Idazle apaigarriak



Bernardo Atxaga

BA AL ZENEKIEN...?

- ... 1951n jaio zela, Gipuzkoako Asteasu herrian?
- ... ama maistra zela eta aita arotza?
- ... 14 urtekin Andoainera joan zela bizitzera, eta orduantxe alfabetatu zela euskaraz, amaren laguntzaz?
- ... argitaratutako lehenengo testua gaztelaniaz izan zela, 1971n, El Norte de Castilla egunkarian?
- ... 1978an Pott Banda literatura-taldea sortu zuela Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi, Josemari Iturralde, Manu Erzilla, Ruper Ordorika eta beste hainbatekin batera?
- ... Obabakoak ipuin-bilduma 1988an argitaratu zuela eta berau dela euskal literaturaren historian sari eta itzulpen gehien jaso duen literatur lana?
- ... bera dela literatur hitzaldi gehien eman dituen euskal idazlea, eta milaka eman dituela?
- ... Behi euskaldun baten memoriak liburua International Board on Books for Young People nazioarteko Batzordearen ohore-zerrendan dagoela?
- ... haren benetako izen-abizenak ez direla Bernardo Atxaga? Haren benetako izena Joseba da, eta deituraz Irazu. Ezizen literario da, beraz.

A1/A2 mailan ikasle bazabiltza eta literaturazalea bazara, ziur nago oso gogoko izango dituzulahunako liburuak:



Naia Chinatown inguruan (+ CD)

Egilea: **Alvaro Rabelli**
Ilustratzailea: **Pedro J. Colombo**
Argitaletxea: **Elkar**
Argitalpen-urtea: **2013**



Liburu honetan Naia izeneko neska gaztea ezagutuko duzu, bokaziorik gabeko detektibe urbanoa. Bizimodua atera behar du; horrexegatik hasi da detektibe-lanetan. Genero beltzagustukoa dutenentzat guztiz aproposa.

Naia India gorrietan (+ CD)

Egilea: **Alvaro Rabelli**
Ilustratzailea: **Pedro J. Colombo**
Argitaletxea: **Elkar**
Argitalpen-urtea: **2013**

Istori honetan hiriko bazter misterioitsu eta ezezagunetara eramango zaituzte Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak; lurpeko mundu batera, hain zuzen ere.



Naia eta eskultore itsua (+ CD)

Egilea: **Alvaro Rabelli**
Ilustratzailea: **Pedro J. Colombo**
Argitaletxea: **Elkar**
Argitalpen-urtea: **2018**



Kasu berri honetan Naia eta Margot artista eta modelo artean ibiliko dira, museo eta arte-galerietan. Heriotza ikaragarri batzuk ikertzeko kontratatu dituzte, baina ikerketa uste baino zailagoa izango da.

aldizkaria



kultura

2019